

Baztan

Udal Boletina

2. zk

2012ko ekaina

SAR HITZA	2
AURREKONTUAK	2
BEHI PIRENAIKOEN FERIA	5
HERRI LAN TTIPIAK	5
MURRIZKETAK ESKOLETAN	6
UDAL PLANA	6-7
GILTXAURDI KUDEAKETA	7
DIRULAGUNTZAK	8
HIRIGINTZA ISUNAK	8
HILTEGIA	8
OSASUN ZENTRETAN MURRIZKETAK	10
KATASTROA	10
KARRIKEN GARBIKETA	10

SAR HITZA

Baztango Udal Gobernuak, bere lehenbiziko urtea betetzear da- goen momentu honetan, baztandar guztiak ahal bezain informaturik egon daitezen lanean jarraitzen du. Horregatik, gure bigarren Udal Boletina aurkezten dizuegu modu zuzenean udalaren jardueren berri izateko. Aldi berean, oroitarazten dugu Baztango Udaleko ateak zabalik daudela aurkeztutako gaien inguruan zalantzak izanez gero informazio gehiago eskatzeko. Bertetik gonbidatzen zaituztegu gure web orrialdea bisitatzeraz eta erabiltzeraz. www.baztangoudala.eu

AURREKONTUAK

AURREKONTU MURRIZTUAK BAINO EDUKI SOZIAL HANDIKOAK

Baztango udalak 2012rako 8.462.631 euroko arrekontua onartu du. Arrekontua iazkoa baino %4,7 handiagoa bada ere -aitzineko legealdian inbertsioetarako utzitako diruarengatik- egiazki, segidan azalduko dugunez, murrizketa gogorrak izan dira; horrela Nafarroako Gobernuaren bidegabeko mozketengatik eta udaletxeak pilaturiko zorrarengatik -8 milioi euro- udalak aurrekontuen berrantolaketa sokona egin behar izan du, haatik, aurrekontuei inoiz baino eduki sozial handiagoa eman zaie, eta horren adibidea zerbitzu sozialen indartzea da.

	2011	2012
Aurrekontuak	8.065.730	8.462.631
Gastu arrunta	6.222.630	6.125.385
Inbertsioak eta bertze ez ohiko gastuak	546.700	673.371

Aurrekontuen testuingurua

Errandako moduan aurtengo arrekontua egiteko tenorean bi baldintza nagusi izan dira: Nafarroako Gobernuaren murrizketak eta udalaren 8.348.607,56 milioiko zorra, zeinaren ondorioz, udalak ez baituen mailegu gehiagorik eskatzen ahal.

Nafarroako Gobernuak 2011. urtearen hondarrean legean aldaketa egin eta gastu arrunterako udaletxe-ari egin behar zion transferentzia- tartean udaletxeko langileen solda-

tak ordaintzeko- 54.604 euroan guttitu zuen, horrela, kontuetan izandako gorabehera hori, udalak beregain hartu behar izan zuen. Baina horrekin aski ez, eta 2012rako gastu arruntean egin duen 54.604 euroko murrizketari, langile-funtzionarioen soldatak izozteko erabakia gehitu behar zaio. Baldintza horietan udalak langileen soldataren KPlaren igoera beregain hartzea ezinezkoa izan da.

Bertze baldintza gogorra udaletxeak pilaturik duen zorra da. Iaz 8.348.607,56 milioikoa zen eta horren ondorioz udalak urtero amortizazioetan 600.000 euro ordaindu behar du eta 260.000 euro interesetan. **Horrela estatu mailan izandako lege aldaketa baten ondorioz (zorra udalaren gastu arruntaren %75 baino handiagoa baldin bada, udala ez da gehiago zorpetzen ahal) Baztango udaletxeak ez du inbertsioak egiteko mailegurik eskatzen ahal. Modu berean, azken urteetako inbertsio politika zarrastaltzailea egiteko baztandarrek dagoeneko kontribuzio altuak ordaintzen dituzte eta hauek ez direnez progresiboak, krisi garai hauetan goratzea ulertzeko zaila litzateke.**

Afera sozialek lehenetasuna

Aurrekontuen testuingurua hori izanik, aurrekontuak bi atal nagusitan antolatzen direla aipatu beharra dago: **gastu arruntak** (udalaren eguneroko funtzionamendua mantentzeko gastuak eta sarrerak, adibidez: ura, argia, soldatak, tasak zerga zuzenak) eta **inbertsioak**.



	2011	2012
Gastu arrunta	6.222.630	6.125.385
Udaleko lantaldea	194.460	155.530
Zerbitzu sozialak	137.700	201.700
Berdintasuna (hemen sartzen da teknikaria+aktibitateak)	0	27.800
Arkitektuaren aholkularitza	80.000	43.000
Zaborren zerbitzua	383.500	347.800
Aseguruak	50.000	35.000
Argiztapena	212.000	200.000

Goiko taulan ikusten ahal den moduan udalak gastu arruntan berrantolaketa sakona egin du eta baldintza ekonomiko berrietaratu egokitzeaz gain zerbitzu sozialak indartu ditu.

Taulan ikusi daitekeenez gastu arrunta guztiz berrantolatu da eta horrela, arkitektuaren aholkularitzan, zaborren zerbitzuan, udaleko lantaldean eta aseguruekin egin diren taxutzeekin denera 134.630 euro aurreztu dira. Aurrezpen horri bertze kontzeptuetan egin direnak gehituz gero, horrek, zerbitzu sozialak indartzeko baliabide ekonomikoak lortzea ahalbidetu du. Horrela, krisi garai honetan kohesio soziala indartzeko, herritarren eskubide sozialak eta ongizatea bermatzen saiatzeko zerbitzu sozialetan hiru langile gehiago izanen dira: gizarte langilea, hezitzailea eta administrari bat (orain artio lanaldi erdian zegoen). Modu berean oraingo jendartean emaztekiek jasaten duten egiturazko zapalketa gainditzeko bidean berdintasun teknikaria kontratatzeko 23.800 euro berezi dira. Hortaz, egindako berrantolaketa guztiaren emaitza gisa, nahiz eta orain langile gehiago izan, gastu arruntaren kopurua 97.245 euroan murriztu da.

Inbertsioak trabaturik

Udalaren inbertsioak gastu arruntetatik bereiz antolatzen dira. Hasteko azkeneko udalak aitzineko aurrekontuetan aurrekusitako inbertsioak egin ahal izateko 448.508 euro utziak zituen. Inbertsio horiek Tokiko Inbertsio Planean onarturik zeuden eta teorian Nafarroako Gobernuaren laguntza zuten. Aurrekusitako lanen aurrekontua 2.233.850 eurokoa zen, horietatik udalak 673.553 ordaindu behar zituen eta Nafarroako Gobernuak 1.560.295. Kopuru horretarat iristeko Baztango Udalak 139.952 euroko mailegua eskatu beharra zuen, baina gaurgero argitu dugunez ez du inbertsioetarako mailegu gehiago eskatzen ahal. Taulan egin behar ziren inbertsioetako batzuk ageri dira:

	Udala	Nafarroako G.
IRURITA-LEKAROS URRA	118.826	250.163
AMAIURKO UR DEPOSITOA	60.815	128.032
ORGANIKO ETA PAPERKO KONTENEDOREAK	17.352	40.488
ZIGAKO HILERRIAREN KONPONKETA	59.474	138.774
ANIZ-BERROETA-GARTZAINGO PISTAK	123.444	288.037
ALMANDOZKO TRABESIA	293.640	714.801

Dagoneko erranenez udaletxeak ez du mailegu gehiagorik eskatzen ahal eta horrela guztiz ezinezkoa zitzaien inbertsio kopuru hori egin ahal izatea. Hortaz, udaletxearen diruak kontuan hartuta lehentasunen arabera inbertsioak berrantolatu dira. Berrantolaketa hori bi irizpideren arabera egin da: premia edo urgentzia eta behar soziala. Horrela, premia edo urgentziarengatik uholdeen kalteak konpontzeko lanak onartu dira eta behar sozialarengatik herrietarat ura eramanez ahal izatea eta pista batzuren moldaketa, bai horietan jendea bizi delako, bai funtzio sozial nabarmena dutelako. Berrantolatutako inbertsio atal horretan denera hogeitatu partida desberdin daude: urekin, bideekin eta eskolekin lotuak, zahar-etxeak, giltxaurdi-ekipamenduaren erostea, auditoria energetikoa e.a.

Baina Udalak inbertsioak modu errealistan berrantolatu eta gero dauden sos pizarrekin lehentasuna dutenak egiteko, Nafarroako Gobernuaren kudeaketa ezin txarragoarengatik ez du lan horiek egiteko laguntzik jasoko. Kontua da Nafarroako Gobernuak iazko obrak ordaintzeko denera 42 milioi, aurtengo 37 milioi onartu dituela, hau da, 5 milioi eskas; horregatik, aurtengo egitekoak ziren obrak tartean Baztangoak ez ditu legez dagokion moduan lagunduko eta, horrek Baztango inbertsio plana trabatuko du.



Amaiurko ikuspegia



Kontenedoreak



Gartzain

NAFARROAKO UPNren GOBERNUAK BEHI PIRENAIKOEN FERIA EGITEKO LAGUNTZA KENDU DU

5

2012ko ekaina

Elizondon Aspinarekin batean joan den irailaren 24 eta 25ean egin zen **behi pirenaikoen enkante eta lehiaketak denera** – udaleko langileen eskulana kontuan hartuta - **47.000 euroko gastua izan zuen. Baina kontuak oraino zuritu gabe daude, zeren Aspina eta babesle gehienek beren partearen handiskoena ordaindu badute ere (3.700 euro falta dira oraino), Nafarroako Gobernuak ez du bere zatia -15.250 euro- ordaindu. Gainera Amaiurko abuztuko ardiari feriatuak **3.675 euroak ere pagatu gabe ditu.** Horrek erran nahi du, momentuz, diru guzti hori Baztango Udalak jarri behar izan duela.**

Bertzalde, Nafarroako Gobernuak 2012ko aurrekontuetan feriatu egiteko diru kopurua aitziariko urteko 50.000 euroetatik aurtengo 25.000tarat jausti du; eta, murrizketak direla eta, aurtengo 25.000 euro horiek iaz agindutako dirulaguntzak ordaintzeko erabiliko dituzte, hau da, Baztango behi pirenaikoen enkantea eta lehiaketa, Amaiurko ardiari, Elizondoko udazkeneko feria, Uharteko Arakilgo e.a. Bistan denez, 25.000 euroekin ez da aski, eta modu horretan, herritarrek jakin beharra dute, iazko Elizondoko urriko feriatu egin zen azienden merkaturako Nafarroako Gobernuak hitz emandako 6.000 euroak gabe gelditu dela Elizondoko herria.

Horrela, eta guzti hori ezagututa, Baztango udaletik Baztango feria desberdinei buruz solastatzeko Nafarroa-

ko Gobernuak abeltzaintza departamenduko arduradunekin mintzatu gara. Hauek diru laguntzak ez segurtzeaz gain, guk aurtengo feriatu antolatzera, aurtengo laguntzen ordainketa heldu den urtean eginen zitzutela erran ziguten, hau da, 2013. urtean.

Eta gauzak horrela izanik Baztango UPNek erran du Baztango Udalak ez duela feriatu antolatu nahi eta nekazarien aldeko solasekin ahoa bete bai, baino ez dugula deus egiten. Guzti honek erakusten duenez UPN gezurretan ari da. **Nafarroako Gobernuak da feria hauek ez egitekotan, ez egitearen ardura duena eta, Nafarroako Gobernuak da ere, urte guzti hauetan nekazariak jasan dituzten neurrien arduraduna, tartean Begoña Sanzberro UPNren Baztango zinegotzia eta aitziariko legegaldia nekazaritza eta abeltzaintza kontseilaria. Bera kontseilaria zelarik nekazaritza eta abeltzaintzarako laguntzak %30 murriztu baitziren.**

Bistan denez, Nafarroako Gobernuaren aldetik horrelako jokamodua ikusita, Baztango udalarendako ezinezkoa da 47.000 euro inguruko aurrekontua duen feria antolatzera. Horrek ez du erran nahi ez denik ari beretz aukerarik aztertzen, borondatea, behi-gorrien lehiaketa-enkantea urtero antolatzera da, baina ikusita Nafarroako Gobernutik ez duela inongo segurtasunik ematen, momentuz ezinezkoa izanen da.



HERRI-LAN TTIPIAK ALDIZKATUZ

Baztanen egitekoak diren herri-lan ttipiak Baztango enpresa desberdinen artean aldizkatuz egiteko erabakia hartu du Baztango udaletxeak. Aipatu herri-lan ttipiak hauek lirateke: herrietako bide eta karrilen mantenimendu lanak, harri-lubetak edo eskoilerak, mendilanak, bertzelako lanak... Lan hauek normaliki 3.000 euro baino guttiagoak izaten dira. **Udaletxe berria lanean hasiz gero gisa horretako 22 lan egin dira eta, aldi bakoitzean, Baztango enpresen artean aldizkatuz hiru eta bertz aurrekontu galdegin dira. Horren arabera, aipatu 22 lan horiek 18 enpresa desberdinen artean egin dituzte.**

ESKOLETAKO MANTENIMENDUAK EGITEKO MURRIZKETAK

Elizondoko Franzisko Xabier ikas-tetxearen mantenimendu lanen ardua Baztango udalarena bada ere, eginkizun orokorretarako Nafarroako Gobernuak diru laguntza ematen du; alta, azkeneko urteetan, laguntza hori modu eskandalagarrian moztu dute eta horrek udalaren ekarpen ekonomikoa handiagoa izatea ekarri du.

Segidan duzuen taulan 2007tik 2012ra biztartearen Gobernuak emandako laguntzen bilakaera duzue, 6 urtean laguntza 14.596 euroan murriztu dute.

Urtea	Kopurua eurotan
2012	11.167,59
2011	11.324,88
2010	22.461,05
2009	25.186,66
2008	25.233,63
2007	25.763,47

Aitzineko udalak Baztango Udal Plan berria egiteko prozesua hasi ondok, horrelako planak duen garrantzia ikusita, udal gobernu berriak herritarren parte hartze prozesua bultzatu du.

Hasteko Udal Plana zer den argitzea komeni da. Udal Plan Orokorra udalerrri batean dagoen udal txostenik garrantzitsuenetakoa da, udalerrriaren garapena eta bilakaera arautzen eta bideratzen duelako. Honekin erran nahi dugu Udal Plan Orokorrean Baztanen zenbat etxe, non eta nolakoak egiten diren zehaztean dela, jarduera eremuak finkatzen direla, dotazioak zer gisakoak eta non ezarriko diren, ze azpiegitura behar diren edo berdeguneak non barna egiten diren. Mugikortasuna planifikatzeko eta antolatzeke balio du, garrantzi bereziko eremuak babesteko, hondatutako guneak berreskuratzeko, espazio publikoak diseinatzeke... Hau da, baztandarrak bizi garen inguru fisikoa planifikatu eta antolatzeke plana da eta, horrek, sekulako garrantzia du Baztango inguru soziala eratzeke tenorean: herritarren arteko harremanak, jarduera ekonomiko-produktiboak, herriarekiko atxekimendua, bizi-kalitatea, etxebizitza izateke eskubidea bermatzea... Horregatik, plan honen diseinuan eta idazketan baztandar guztiek parte hartzeke aukera izan behar dutela uste dugu.

Udal Plan Orokorrearen lehen zatia Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Eredua (LOEE) da. Txosten honek izae-

ra estrategikoa du eta ondok egiten den eta arauemailea den Udal Planaren oinarria da. Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Ereduan Baztanen inguruko gogoeta orokorra egiten da, ze herri eredu nahi dugun eztabaidatzen; eta, horretarako, hainbat alderdi sozial, ekonomiko e.a. gogoan hartzen dira. LOEE horretan irizpide orokorrak finkatuko dira, gidalero nagusiak, eta horren gainean aipatutako plan arauemailea egiten da.

Modu horretan azkeneko hilabeteetan Baztanen egin den prozesu parte hartzaileak Lurraldearen Okupazio Estrategia eta Ereduari dagokio. Kuartelka eta Elizondon batzarrak egin dira eta gainera, Baztango sektore desberdinetako ordezkariekin ere foroa egin da. Denera bi bilera itzuli egin dira eta bakoitzean ehun herritar inguruk parte hartu du. Bildutako ekarpenekin txostena egin eta hura herritarren aitzinean aurkeztuko da. Bilerak gidatzeko, aktak jasotzeke eta txostena egiteke teknikaria kontratatu du udalak eta haren kostua 3.500 euro + BEZ izan da.

Horretaz gain, Baztango hiri-garapenaren berri ematen duen erakusketak egin dute herritarrek eta hura Elizondoko plazako eraikinean ikusgai paratu da.

Beti ere Udal Plan Orokorra idazteke oraino urte guztia joanen da eta idazketaren momentu bakoitzaren arabera, herritarrek parte hartu ahal izateke berteko desberdinak ezarriko dira.

UDAL PLANAREN LURRALDE OKUPAZIOAREN ESTRATEGIA ETA EREDUKO PROZESU PARTE-HARTZAILEA

7

2012ko ekaina

Udal Planaren Lurralde Okupazioaren Estrategia eta Eredua idazteko herritarren parte hartze prozesua hasi du udalak eta horretarako parte hartze teknikari gisa Txema Jurado soziologoa ari da. Berarekin orain artiokoaren balorazio laburra egin dugu.

Ze balorazio egiten duzu Udal Planaren hasierako parte hartze prozesuaz?

Balorazio positiboa egin behar dela uste dut. Denera 150 pertsonen parte hartu dute eta guztiak Baztanen etorkizuna hobetzeko interes handia erakutsi dute. Halako gai koropilatsua izanik parte hartzea arras ona izan dela iruditzen zait.

Zure esperientziaren arabera herritarrek orokorrean parte hartzeko ohitura dute? Eta gogoaz?

Orain hasi da parte hartzea bulkatzen. Urteetan parte hartzeko aukera aski mugaturik izan dugu. Demokrazia ordezkatzailleak inplikazioa beharrezko delegazionismoa sustatzen du. Baztanen abantaila duzue: Parte hartzea modernoa irudiagatik Baztango kultura eta ohitura politikoarekin bat egiten du, eta hori aipatzen dudalarik Batzarreei eta auzolanari buruz ari naiz.

Parte hartzearen kultura garatzeko nondik jo beharko litzateke?

Eskolatik hasita egin beharko litzatekeela iruditzen zait. Parte hartzeko eskubideak eta ardura sozialak hezkuntzako irizpideak izan behar dute. Teknikari gisa Lakuntzako udaletxearen dako lanean aski esperientzia positiboa izan nuen. Herriko plaza herritarren parte hartzearekin berritu zuten eta hurrei ere beraien iritzia galdegin zitzaion.

HILTEGIA ARAUTEGIRAT MOLDATZEKO LANAK

Aitzineko udalak legealdiaren honddarrean kudeaketa berria esleitu edo adjudikatu ondotik, orain, Loizu hiltzaria arautegiaren eskakizunetarako moldatzeko Baztango udalak momentuz 17.000 euro bideratuko ditu. Egin beharreko lanak zehazteko Nafarroako Gobernuak osasun publikoaren institutorekin egon gara eta hasteko azien den sarbidea hobetzeko alaka edo txafana egin da pareta batean. Modu berean heia berriaren proiektua eta bertzelako lanen proiektua idazteko udalak 1.500 euroan ingeniaria kontratatu du. Bertzalde ur-araztegiaren sarea jarriko da, horrela xoriek hiltzarietatik ateratzen diren haragi hondarrak ezin di-

tzaten jan. Gainerakoan animalien tripetako kakak eta aziendak kamioietan eramaten direlarik ekartzen dituzten azpiak e.a. biltzeko ongarrindako lehorpea egingen da. Halaber, aziendak hil aitzinean zorabiatzeko erabiltzen den ekipoa berrituko da (2.500 euro) eta azienda tikiak hiltzeko (zerriak, ardiak eta bildotsak) box edo ataka berezia egingen da (3.000 euro). Heian ere ur-kazpelak paratuko dira. Azken hauek animalien ongizate ataletik eskatuak dira.

Moldaketa horiekin hiltzaria arautegirat moldatu bidenabar, orain artio jasotzen zituen isunak sahiestu nahi di-

ra. Ondotik, hiltzariaren gainean, lehen sektorea egituratzeko proiektu publiko enpresarial bat egiteko pausuak ematen dira.



Baztan

Udal Boletina

DIRULAGUNTZAK ESKATZEKO PROZEDURA BATERATZEA ETA URTE GUZTIAN IREKIA

Baztango Udaleko Euskara eta Kultura sailek herriek eta kultur elkarteek antolatutako jarduerak diruz laguntzeko deialdi bana argitaratu izan ohi dute orain arte, urtero.

Diru-laguntza horiek eskuratzeko orain arte eskabideak Euskara Zerbitzuan edo Kultura Zerbitzuan aurkeztu ziren, eta ondoren, Zerbitzu bakoitzeko irizpide teknikoaren arabera banaketa egiten zen.

Prozedura horrek hainbat arazo ekarri izan dizkio udalari: bi zerbitzuetan faktura berberak aurkeztea, jarduera berbera bi sailetatik laguntza eskuratzeko asmoz; jarduera berberaren gastua justifikatzeko bi ordainagiri desberdin aurkeztea, kopuru desberdinekin; aipatutako "arazoa" saiheste al-

dera, **kultur jarduerak diruz laguntzeko eskabide bakarra aurkeztu behar da.**

Bertzalde, **dirulaguntzak eskatzeko epea urte osoan irekia** egonen da hemendik goiti. Izan ere, orain artio urte hasmentan eskatu behar izaten zen diru laguntza, anizteta urte akabailan zer ekitaldi antolatuko ziren jakin gabe. Eskabideak epe zehatzean aurkezteko zailtasunak, zer motatako jarduerak antolatu behar ziren ez jakiteak, noiz, nola edo zenbateko gastua izanen zuten aurretik jakiteak... zail egiten zitzairen hainbat herri eta kultur elkartei.

Hori dela, edozein kultur jarduera antolatzeko urte guztian egiten ahalko da eskaera.



Idazleekin solasean, Arkaitz Cano Erratzun



Xaboi ikastaroa. Amaiur

HIRIGINTZAKO ARAU HAUSTEENGATIK ISUNAK

Etxean zeinahi lan egin behar dela ere: barneko konponketak, teilatuen berritzeak, etxolen goratzea... baimena behar den moduan eskatzea beharrezkoa da, bertzenaz isunak etortzen ahal baitira. **Lanekin hasteko ez da aski baimena eskatzea, baimena ere jasoa behar da, hortaz, baimena eskuratu artio ez da lanekin hasten ahal**, horrek ere espediente irekiera ekartzen ahal baitu. Bereziki kontuan hartzeko afera da, zeren, gaizki egindakoa normalki gaizki akitzen baita. Modu ho-

rretan, Baztango udalak arau-hausteen zehazpen espedienteak normaltasunez tramitatu izan baditu ere, 2009. urtetik espediente hauek jarraikortasunez tramitatzeari utzi zitzaion. **Geroztik, udal berri osatu eta gobernu berriak esku arterat iritsi zaizkion espedienteak nahitaez tramitatu behar dira uste du, eskabideak eta tasen ordainketak ongi egiten dituzten baztandarren aitzinean itsuskeria baita gaizki egindakoa saritzea eta horrek arau-hausleei buruz aldeko tratua su-**

posatuko lukeelako, baimenak ez eskatzeko eta tasak ez ordaintzeko praktika babestu bidenabar. Horrela, Baztango udaletxeak, mahai gainerat etorri zaizkion espedienteak tramitatuko ditu eta, bertalde, hemendik aitzinean legea betearazteko eta arau-hausteen jarraitzeko protokolo bat egiten du. Protokolo horrek udaletxearen jarduna antolatuko du eta herritar guztien ezagutzakoa izanen da gauzak jakinaren gainean egiteko.

Baztango udalak Giltxaurdi kirol instalazioak kudeatzeko enpresa publikoa sortzeko erabakia hartu du. Helburua erabiltzaileei zerbitzu hobereana eman bidenabar udalarendako aukera ekonomiko bideragarriena aukeratzea izan da. Hasierako aurrikuspenak gibeleratu direnez uda pasatu artio ez da kudeaketa eredu berria martxan paratuko.



Gaur egun udalak Masquattrori Giltxaurdiren kudeaketarengatik urtero 91.781 euro gehi BEZ-a ordaintzen dizkio. Instalakuntzek duten bazkide kopurarekin ez da inondik ere autofinantziatzen ahal eta horregatik, udalak urtero ekarpen ekonomikoa egin behar izaten du. Baina aipatu kopuru horretan "enpresa etekinaren" kontzeptua dago, 2010. urtean adibidez 32.000 euro. Hortaz, enpresa publikoak kudeatzera "etekin" hori automatikoki esku publikoetan geldituko litzateke, eta horrek aurrezte garrantzitsua sopsatuko luke. Horrekin eta aurrikusitako bertze egokitzapen batzuekin -berogailu sistema adibidez-, instalakuntzen kudeaketa merkeagoa izanzen dela aurrikusida.


2004. urtean Giltxaurdiko kirol instalazioak ireki ziren momentutik kudeaketarena arazo konplexua izan da.

Nafarroako Gobernuak kudeaketa pribatuaren aukera lehenetsiz eta udal txede desberdinak horretarat bideratuz, udalek kudeaketa zuzena egiteko aukera tratatu zuen; izan ere, instalakuntzak egiteko emandako laguntza baldintza horrekin ematen baitzuen.

Geroztik kudeaketa eredu hori ez dela ez herritarren ezta udal txede hobe beharrez pentsatuta egin ikusi da; hau da, sektore enpresarial batzuen alde egin dela. Egoera bihurria da: inbertsio guztia diru publikoekin eginda, kudeaketaren etekinak esku pribatuetan uzten dira. Horren aitzinean azpiegitura publikoen kudeaketa publikoaren alde egitea zentzuzkoena da, erabiltzaileei zerbitzu hobereana emateko, langileen baldintzak duinenak izateko eta udalendako aukera ekonomiko eraginkorra delako.

Modu horretan Maiatzaren 3ko udalbatzarrean enpresa publikoaren sorrera behin betiko onartu zen eta ondoko asteetan gerentearen hautaketa prozesua eginen da. Horrela, hasieran uda aitzinerako dena prest egonen zela usate bazen ere, hondarrean uda ondotik hasiko da kudeaketa eredu berria. Biztartean Masquattrori luzapena aginduko dio udalak, eta horretarako, hila betero 8.100 euro inguru ordaindu beharko dizkio.

Ondoko asteetan langileekin eta erabiltzaileekin guzti honen inguruan argibideak emateko bilerak eginen dira.



Baztan

Udal Boletina

OSASUN ZENTRUETAN ZERBITZUAK MURRIZTEKO DUTEN ASMOAREN AITZINEAN

KARRIKEN GARBIKETA

Baztango udaletxeak karriken garbiketa antolatzen du eta herriko eragile desberdinen adierazteko eskubidea errespetatuz kartel eta pankarten garbiketa bideratzeko irizpide berria eman du. Orain artio kartelak paratu bezain fite kentzen ziren herriko eragileei adierazteko aukerarik utzi gabe. **Hemendik aitzinerat Elizondon hilabete guztietako lehen eta hirugarren astelehen eta asteartean kenduko dira. Halaber, hirugarren asteko astelehen edo asteartean carchera edo mangera zerbitzua pasatuko da. Bertaldea, Baztango gainerako herrietan hilabeteko lehenengo astean kenduko dituzte kartelak.**



Apirilaren 23an, Osasun Kontseiluak Nafarroako zenbait alkate eta osasun-zentrutako zuzendariri -Osasuneko Oinarrizko Eremuetakoei- osasun-zentruetan eskaintzen diren zerbitzuak eta Osasuneko Oinarrizko Eremuen funtzionamendua aldatzeko asmoa dutela jakinarazi zien.

Neurrien artean, osasungintzako zerbitzuen arretan eta kontsultetan aldatetako eta, larrialdietako zerbitzu eta murrizketak –modu nabarmenean planteatzen dira, zentru hauek lurraldean duten birbanaketarekin batera.

Egiazki, “birrantolaketa” gisa saldu nahi duten hori, osasun zerbitzuen murrizketa basatia eta sakona da; herritarren oinarrizko zerbitzu eta eskubideetako baten murrizketa; Osasunerako Eskubide Unibertsalaren aurkako neurrien bonbardaketari gehitzen zaion murrizketa.

KATASTROA

Katastroko sailetik adierazi dutenez, kontribuzioaren erreziboak bidali dira bankuz domiziliaturik ez dutenei. Aldi berean jakinarazten da, domiziliatutako erreziboak, lehenengo sei hilabetekoak, ekainaren 18an kobratuko direla.

Aurten ez dira orri katastralak igorriko, diru eta papera aurrezteko. **Orri katastrala behar izanez gero, interes-**

Baztani dagokionez, bertze neurrien artean, murrizketa hauen bitartez Oronoz-Mugairiko larrialdi puntua kentzea proposatzen dute. Neurri hau Osasun Zentrotako iritzia eta Udalaren iritzia kontra hartu nahi dute.

Egoera horren aitzinean Baztango Udalak Osasun Zentrotako zuzendariaren eskutik eman zen bilera informatiboratu gonbidatu zituen Baztan Nagusiko kide guztiak eta Oronozko suhiltzaileak. Argi eta garbi gelditu zen Baztan arras egoera larriaren gelditzea dela puntu hori kenduz gero eta erabaki hori irizpide ekonomikoetan soilik oinarritutako erabakia dela.

Horregatik Udalak premiazko bilera eskatu du osasun kontseilariarekin gure kezka eta iritzia azaltzeko. Ez dugu inondik ere erabakia onartuko eta, horrela, herritar guztiak deitzen ditugu egoera salatzeko antolatutako diren mobilizazio guztietara.

dunek eskuratu dezakete bai Udal bulegoetan bertaratuz, telefonoz, edo web orriaren bidez.

Azkenik, jakinarazten da planoak gaurkotzen ari garela karrika izendegi berriaren datuekin. Behin froga fasea bukatuta, herritarrei zein etxeen jabeei, helbide ofizialaren berri emanen zaie.

ANTE LOS RECORTES PROPUESTOS EN LOS SERVICIOS DE LOS CENTROS DE SALUD

de Cronoz-Mugairi. Quieren imponer dicha medida en contra de la opinión del Centro de Salud y en contra de la opinión del Ayuntamiento.

En esa situación, el Ayuntamiento de Baztan invitó a todos los miembros del junta general y a los bomberos de Oroz a una reunión informativa que se llevó a cabo de la mano de la dirección del Servicio de Salud. Quedó muy claro que Baztan quedaba en una situación muy crítica eliminando dicho punto y que tal decisión es una decisión basada única-

Es por ello que el Ayuntamiento ha solicitado una reunión de urgencia con la Consejera de Salud para expresar nuestra preocupación y nuestra opinión. No aceptaremos de ninguna manera dicha decisión, y por ello haremos un llamamiento a todos los vecinos para que tomen parte en las movilizaciones que se llevarán a cabo para denunciar esta situación.

Ahora bien, todas las personas interesadas podrán solicitar su hoja catastral personándose en las oficinas municipales o bien solicitándolas vía teléfono o internet.

Por último, indicar que se están actualizando los planos con los datos de los nuevos callejeros. Una vez concluida la fase de pruebas, se notificará a los vecinos y propietarios la nueva dirección oficial.

El 23 de abril, el Consejo de Sanidad comunicó a algunos alcaldes y directores de Centros de Salud -a los de las Zonas Básicas de Salud- su intención de modificar los servicios que se ofrecen en los Centros de Salud y el funcionamiento de las Zonas Básicas de Salud.

Entre esas medidas se plantean modificaciones en la atención de los servicios de salud y reducciones—notables- en los servicios de urgencias, conjuntamente con la redistribución de los centros en dichas zonas.

Lo que nos quieren vender como “reorganización” no es más que una reducción salvaje y profunda de los servicios de salud; una reducción de los servicios y derechos básicos de las vecinas; una reducción que se suma al bombardeo de las medidas contrarias al Derecho Universal de la Salud.

En lo que se refiere a Baztan, con estas medidas proponen, entre otros, la eliminación del punto de urgencias

Desde la sección de catastro se comunicó que se han enviado los recibos de contribución a aquellas personas que no los tienen domiciliados en el banco. Asimismo, se comunicó que los recibos domiciliados correspondientes al primer semestre se girarán el 18 de junio. Teniendo en cuenta el elevado coste tanto económico como de papel que supone el envío, este año no se enviarán las hojas catastrales.

CATASTRO

LIMPIEZA DE CALLES

El Ayuntamiento de Baztan ha adoptado una nueva iniciativa para la organización de la limpieza de las calles y para realizar la limpieza de carretes y pancartas respetando el derecho de expresión de los diferentes agentes del pueblo. Hasta ahora se quitaban los carretes nada más colocar, sin dar ninguna posibilidad de expresarse a los agentes del pueblo. En adelante, en Elizondo se quitarán dichos carretes y pancartas todos los primeros y terceros lunes y miércoles de mes. Asimismo, los lunes y miércoles de la tercera semana se pasará el servicio de manguera. Por otro lado, en el resto de los pueblos de Baztan se quitarán los carretes la primera semana del mes.



